


# 1- IKUSI AURRETIK

## 1.1 Badakizu...




Josu eta Amaia gaur klasetik irakasleari buruz hizketan atera dira. Zuk gogoratzen al dituzu zure irakasleak? Jarri talde txikitari eta komentatu puntu hauek:

- Gogoratzen al dituzue txikitako irakasleak?
- Ba al dago baten bat bereziki gogoratzen duzuenena? Zergatik?
- Nolakoak ziren garai hartako irakasleak?
- ...

*Nire garaiko klaseak oso gogorak ziren. Askotan gelditzen ginen zigortuta. Nire irakasle bati "Reglitas" esaten genion, erregela batekin paseatzen ibiltzen zelako, eta, pasatzean burua liburutik altxatzen bazenuen, erregelarekin ematen zizun.*



Eskolan gertatutako pasarte bat kontatu behar duzu taldean. Kontakizuna prestatzeko hartu apunte labur batzuk hemen:



# 2 - IKUSI BITARTEAN



## 2.1 Hori klase aspergarria!

Ikusi elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

Zer iruditzen zaio irakaslea Josuri?

.....

Eta zer dio Amaiak?

.....

## 2.2 Lo seko!

Ikusi elkarrizketa berriro.

Josuren ustez, zenbat ikasle izango dira ikasturte amaieran?

.....

Zer erabaki du Josuk?

.....

Zergatik haserretu da irakaslea?

.....

### 3 - IKUSI ONDOREN

#### 3.1 Interesgarria.



Testuko esaldi hauetan zenbait atziki azaltzen dira. Esaldiei erreparatuta, zer uste duzu esan nahi dutela? Lotu atziki bakoitza bere esanahiarekin.

- Gizon hau jasan**gaitz**a da.
- Askok jakingo du ikas**gai**az.
- Ikasturte hasi**era**n ere esan nuen.
- Bai baina gaia oso interes**garri**a da.
- Masterrean oso garrantzi**tsu**a da eta.

**-gaitz** sendagaitz, sinesgaitz

*eragiten du, sortzen du.*

**-gai** elikagai, aztergai, hautagai

*ugaritasuna.*

**-era** amaiera, joera, ibilera

*ekintza gauzatzeko zailtasuna.*

**-garri** barregarri, mingarri, beldurgarri

*ekintza, modua.*

**-tsu** menditsu, jendetsu

*materia, gaia.*

#### 3.2 Egingaitza.



Saia zaitetze esaldi hauek berridazten atzizkiak erabilita.

**Irakaslearen azalpenak oso zailak dira ulertzen.**

Irakaslearen azalpenak oso ..... dira.

**Bere erantzunak harritu egin nau.**

Bere erantzuna ..... izan da.

**Etxera iristeko aldapa asko daude.**

Etxeko bidea oso ..... da.


**Ez zait gustatu nola portatu den.**

Bere ..... ez zait gustatu.

**Gaur gelan entzun dugun audioa oso polita izan da.**

Gaurko ..... oso polita izan da.

## 3.3 Irakasle ideala.



Gure protagonistak ez daude gustura irakaslearekin. Zuek ez duzue arazo hori izango. Orain irakasle bat kontratatu behar duzue zuen talderako. Nolakoa izan behar du? Egin irakasle idealaren dekalogoia. Adibidez:

- *Ariketa interesgarriak ekarri behar ditu.*
- *Klase atseginak egingo ditu.*
- 

## IRAKASLE IDEALAREN DEKALOGOIA

1.

2.

3.

4.

5.

6.

7.

8.

9.

10.